

5. KONTENEDOREA

- Aukera hau hartzen duen familia bakoitzari balde marroi txiki bana eta kontenedore marroiko giltza emango zaie organikoa jasoteko.
- Udalerrian bi-hiru tokitan egongo dira kontenedore marroi hauok.
- Zer bota daiteke kontenedore honetara: hondakin begetal **GORDINAK BAKARRIK**, baina **inoiz ez kozinatutako janari hondakinik**, ez eta arrain edo haragi hondakinik.

Bota daitezke: Fruta, barazki eta ortu hondakinak.
Pasta eta arroz hondakinak.
Lore eta landare hondakinak.
Ogi, gaileta eta opil hondakinak.
Kafe eta infusio hondakinak (poltsatxoak barne).
Kortxozko tapoiak.
Sukaldeko paper eta arrautzontzi kartoaiak.

- Zenbat eta hondakin gehiago bota kontenedore honetara, gutxiago izango da grisera bota eta erre beharko dena.



ZER EGIN DEZAKET NIK...

- Udalaren aurrean birziklatzeko prest nagoela agertu, udalean izena emanez. Birziklatzeko kita eta gida inongo kosterik gabe jasoko dituzu horrela!
- Organikoa banatzeko prest nagoela adierazi Udalean. Auzokonposta (herri mailan), autokonposta (norbere etxean norbere kontura) edo 5. Kontenedorearen bidez.

Dudarik badozu, zein izena emateko, deitu udalera: 94 616 40 07
edota mankomunzagora: 946842982 www.leaibarra.com



MUNITIBARKO
UDALA



LEA-IBARREKO
MANKOMUNAZGOA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Munitibarren zaborrak gutxitu? NIK BAI!

Gaur egun...

- Lea Ibarreko bost Udalerrietan ia 1.000 tonelada hondakin batzen dira.
- %18,25a **bakarrrik** birziklatzen da.
- Zaborteaira edo erretzera %81,75a bota da. Honen kostua **70.000€** ingurukoa da.
- 2016. urterako %60a birziklatu beharko da.

Birziklatu egin behar dugu...

- Ia %90 birziklatzea posible da!
- %65-70 birziklatzen ahalegindu behar genuke gutxienez!
- Birziklapen tasa horretara helduko bagina, urtean **40.000€** inguru aurreztuko genituzke. Lanpostuak sortu, inbertsioak egin, behar dutenei lagundu... hainbat gauza egiteko erabili dezakegu diru hori.

Zelan egingo dogu...

Ondo birziklatzen hasiko gara, horretarako udaletik...

- Informazio gida bat zabalduko da irailean.
- Erreziklajerako "kit" bat banatuko da biztanleen artean.

Organikoa banatuko dogu, konposta eginez...

- Bi aukera doguz:
 - Konpostajearen bidez ala
 - 5. kontenedorearen bidez.



Birziklatze kita...

- Kit honekin etxean bakoitzak boluntarioki banaketa ondo egitea da asmoa.
- Gida ere banatuko da dudak daudenean zer egin jakiteko.
- Inongo koste barik.



Organikoa banatuko dogu...

KONPOSTAJEA

- Aukera hau hartzen duen familia bakoitzari balde marroi txiki bana emango zaie organikoa jasoteko.
- Zer bota daiteke konpostagailura: edozein hondakin organiko, bai GORDINA eta baitere KOZINATUA.

Bota daitezke: Fruta, barazki eta ortu hondakinak.
Pasta eta arroz hondakinak.
Lore eta landare hondakinak.
Ogi, gailera eta opil hondakinak.
Kafe eta infusio hondakinak (poltzatxoak barne).
Kortxozko tapoiak.
Sukaldeko paper eta arrautzontzi kartoiak.

Eta baita ere: Arrautza oskolak.
Arrain edo haragi hondakinak.
Itsaskien oskol eta maskorrek.
Esnekiak.
Saltsak.
Kozinatutako hondakinak.

- Zenbat eta hondakin gehiago bota konpostajerako, gutxiago izango da kontenedore grisera bota eta erre beharko dena.

AUZOKONPOSTA

- Munitibarren 2 auzokonposta gune egongo dira herri gunean.
- Bertara edonoiz bota ahalko da organikoa; kozinatua zein gordiña.
- Mantenimendua eta materiala ornitzea udalaren kontura izango dira.



AUTOKONPOSTA

- Bakoitzak bere kontura etxean konposta egitean datza.
- Autokonpostagailuak udalaren kontura lirake. Ortuaren edo lurraren gainean ipinten da.
- Materiala sikua eta mantenimendua norbere kontu litzake.
- Konposta egiteko kurtsiloa, gida eta jarraipena egongo lirake udalaren eskutik eta inongo koste barik.

